

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

327n. zenbakia

2007 aprilla



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

FAMILIAK

UDABARRIA DATOR. NONDIK IGARRI ORI?

Kimu barriak ezaugarri, baita negua igaroteko joan ziran txoriak barrero etortea be: Umeak azteko sasoia da. Negua taldeetan igaro dabe, baiña orain bakarka egiten dabe euren lana.

Txori ar bakoitzak bere saillea dauka eta ez dautse ezten besteai saila orretara sartzen. Burruka gogorak sortzen dira.

Ori adierazteko izaten dira txorien abestiak, bere laguna izango dan emeari deika. Eta kantuz ezagutzen doguz txoriak, kolorez ezagutzen doguzan antzera. Abeslari on lez urretxindorra ezagutzen dogu, baiña aitatu dauguzan birigarroa, txamillotxa, zozoa, kukua...

Txoriak euren ezteguak, bodak, egiten dabez Orretarako deia arrak egiten dau kantuz eta luma koloretsuak ondo erakutziz.

Ankaluzeak maitemiñezko burrukak egiten dabez alkarregaz, trebetasuna agertzeko.

ATSEGIN-BARATZEKO EGAZTIAK

Elkano'k ekarri eutsozan V Carlos'eri ankarik ez egorik ez euken egazti batzuk, paradisoko egaztiak deritxe onei.

Txori guztietatik ondoen jantziak dira, baiña euren lurraldean anak eta besoak kendu eutsezan. Lurra ez zan eurentzat! Baiña beste lurralde askotan be bizi dira, Australia'n esaterako. Papuen artean agintari nagusien ezaugarri dira. India'n maraja'ren apaingarri. Olakoen eiza gaur debekatuta dago.

Ezteguetara arra apain agertzen da, emea ez ainbeste. papuasan zugatz baten batzen dira amarnako taldeetan dantzea egiteko. Ikusgarria da Rodolfo erregearena deritxon txoria!

Egaztien abiak

Guk egiten doguzan etxeak ez dira bardiñak, antzain-txaboletan asi eta "rascacielos"era bitartean.

Txoriak euren buruausteak daukez abiak egiterakoan:

– Batzuk lur gorrian egiten dabez arrautzak, inguruaren kolorekoak.

– Xulupristak ur gaiñean egiten dau abia eta itxaslandarekin apaindu.


– Beleak zugatzan abarretan egiten dauz.

– Abi bigunak eta egokiak egiten dabez: odoldia kanpotik, lumak barrutik.

– Elaiak igeltzero-lana egiten dau.

– Beste batzuk zuloak billatzen dabez, gabontzak esaterako.

– Beste batzuk, okillak esaterako, zuloa egin.



– Batzuk ariak lotuta egiten dabez eta euren txistuagaz lotu.

– Beste batzuk jostun onak dira, txinbo jostuna, esaterako.

– Txori batzuk lurpean egiten dabez abiak, ori egiten onak dira elai batzuk: erreka-ondoan zuloak egiten dabez, metro bat sakon eta barruak abia toki zabalagoan, uraren ildur barik.

Antxe egiten dabez umeak urteetan udabarritik udagoienara.

Inkubadoren antzekoak dira eta txitak pozik urteten dabe.

12.– EDESTIA: 36´ko GUDA ETA ONDORENAK

Aundia zan euskaldunen poza, Agirre buru zala aber-tzaletasuna ain bizi ikusita.

Baiña zorion orrek etekin negargarria izan eban. Gudea.

Guda ori, izatez, españatarren artekoa zan, alde bate-tik erkal edo errepublikazaleak eta bestetik matxinzaleak edo Franco´ren alde jarri ziranak.

Gudara sartu orduko, euskaldunak Erroma´ra joan ziran eta an emon eutsen aolkua España´ko alderdi kato-likuagaz (CEDA) alkartzea izan zan.

Aztoa ondo aztertu-ondoren, legezkoa zan erkal edo errepublikearen alde sartzea izan zan erabagia, baiña itaun au egin eben Erroma´n: Bidezkoa edo kontzientziz onartzeko gauzea da Eleizearen aurka egon eta erdi-komunista agertzen zan legezko errepublikearen alde agertzea?

Erantzuna au izan zan: Kontzientziz artu zeinkee bide ori, baiña galtzeko bidea dozue.

Asi zan guda bildurgarria eta Mola bere gudariakaz Naparroa´tik Irun´era sartu zan. Gero Franco eta bere gudariak be etorri ziran eta guda ori galdu egin gendun. Santoña´ra arte aurrean eroan ebezan gure gudariak eta gure lurra amaitu zanean, Santander´eko erri orretan gualburu italiarrakaz ituna egin eben eta itxasoz urten eben erbesterako bidean, baiña Franco´k itxasoan doaze-la atzera etorteko agindua emon eban eta guztiak izan ziran epaituak eta zigortuak. Batzuk il be egin ebezan, asko espetxeratu edo lan beartuetara bialdu..

Ondorenak larrienak izan ziran: Errietako agintari guztiak españatarrak ipiñiak, euskerea debekatua, liburuak eta aldizkariak argitaratzea debekatua, 500 abade erbesteratuak eta 17 illak...

Egoera larri onetan 39n. urtetik 50n´era zer egin ete eben euskaldunak?

– Etxean eta isillean zaindu abertzaletasuna.

– Liburuak idatzi eta idatzi, baiña argitaratu barik, esaterako aldi orretan eta Ameriketean euskeratu ebazan Larrakoetxea zeanuritarrak Shakespeare´ren antzerki-lan guztiak eta argitaratu barik euki ebazan Kardaberaz Baz-kuneak 1968n. urte-inguruan argitaratu arte.

1950n. urte-inguruan asi ziran gure idazleak libururen batzuk argitaratzen: Santi Onaindia aitak argitaratu eban “Milla olerki eder” liburu ederra, baiña baitu egin eutsoen. Polizi-etxean garbitzaille-lana egiten eban andra batek atera eutsozan batzuk isillean.

Eta non geratu ziran liburu orreik?

Ez dakigu gauza aundirik, baiña Aita Santi´k gutunen batzuk artu ebazan erbestetik, liburu orreikaitik zorionak eta eskerrak emoten. Antza dagoanez, españatarrak liburu orreik mundura zabaldu ebezan, eurak euskerearen alde jokutzen dabela baieztatu naiez.

Azkenerantza askatasun apur bat geiago lortu ba´zan be, agintaritzza gogor ori zala-ta, euskereak eta euskaldunak asko galdu eben 1936n. urtetik 1976n. urtera bitar-tean.

OLAZAR´tar Martin´ek



AFRIKA: 55.– BIKTORIA ZINGIRA (LAGOA)

Lur-garri edo Ekuador aldean dago, Kenia ta Tanganika inguruan dauzala Biktoria zingira, Afrika´ko zingirarik aundiena eta munduko irugarrena. Sakontasunik audienean 82 m. Iparralderantz Nilo ibaia sortzen da.

Or sortzen da inguruan bear dan argi-indarra.

araintzarako ta ibilteko ona da baiña ez uger egiteko: Kokodrilloak dagoz urrean, papiroen artean.

Tse-tse euli bildurgarria dago gizakiak eta abereak gaisotzeko.


Millaka ipopotamoak dagoz ertzetan ura azal dagon lekuetan eta kaleetara be sartzen dira. Oneik suari dautsoe bildurra, azal buztia bear dabelako bizi izateko.

Salgairik nagusiena liñoa da. Papaia ta kakauetea be bai.

Arratsaldeetan eguzkia gorritzen danean zingira oso ikusgarri biurtzen da.

OLAZAR´tar Martin´ek

ERRIOXA EUSKALERRIA DA



BIGERA'n

*Jose Antonio González Salazar
Martin Martinez de Jubera
Laxaga*

Errioxako euskal aztarnak billatzen asi giñan arkitzetako monastegiak ezagutzen genituela.

1974garren urtean argitaratu genuen euskaraz liburuxka bat **ERRIOXAKO SAN MILLAN EUSKAL ITURRI** izenarekin. Antxen agertzen genituen euskerazko izen pillak. antxen agertzen ziran euskal aztarna asko. Antxen agertzen ziran idatziak lenengo itzak euskaraz.

JUAN BAUTISTA MERINO URRUTIAK argitaratzen ditu beste itz asko euskaraz, **EL VASCUENCE EN LA RIOJA** liburuan.

GONZALO DE BERCEO apaiz olerkariak amabigarren gizaldian erderaz idatzitako olerkietan itz asko euskeraz sartzen ditu:

ARDURA amairu aldiz,
ASMAR 80 aldiz,
ZATICO 2 aldiz,
AINA 34 aldiz,
ARLOTES 2 aldiz,
DON BILDUR bein, eta abar...

Lenengo arremanak Errioxako euskal-zaleekin San Adrianen, Naparroan nintzala lortu nitun 1997garren urtean.

Jose Luis Antoñanza Lopez Kalagorriko gazte batekin asi nintzan billerak eginen. Zortzi lagun bildu giñan; ba zuten euskal zaletasuna.

Antxen jakin genun Logroñon euskal-zale talde bat sortu zala (6.10.2001) **LAMINITURRI IZENAREKIN**. Ardura-duna **MARTIN MARTINEZ SAEZ DE JUBERA** agertzen zan. Biltokia bezala Logroño Unibersidadean zeukaten. Talde oneri **LAMINITURRI EMAN ZIOTEN IZENA**. **ERRIOXAKO ERRIXKA BATEAN** Ojacastro delakoan arkitzen dira, izen orrekin. Bizpaur mendiko iturriak euskarazko ikasaldia zuzentzen zuten. 10 ikasle datorkiez **LAMINITURRI TALDETIK**.

Beste izen aundiko ekinza berexi bat lortu dute euskal giroa sortzeko; **EUSKARAREN BIDEA 175 KILOMETRO OÑEZ, BERMEOTIK ERRIOXAKO SAN MILLANE'RAÑO EUSKAL ITURRI**, euskaraz atsegiñez.

Laminiturri taldea Jose Antonio González Salazar Arabatar apaizarekin arremanetan jarri nitun. Jose Antonio langille arrigarria da. Ba ditu zortzi liburu Arabako toponimiarekin egiñak. Beti esan nion lagun-tzeko Errioxako euskalzaleen taldeari. Bizpaur ibilialde egin genitun alkartuta; Ojacastro, Ezkaray, Ormazas delako mendikatean, Billanueva de Cameros. emen euskal artzai baten izena zegoen aspaldi garai-koa. Camerosko lurraldeak euskal kutsu aundia daukate. Mereci du aipatzea San Esteban de Viguera, baita **IREGUAKO LURRALDEAK**; Dantza zarrak ikustera maiz joan giñan; Anguiano eta San Millanera.

Agertzen ari geran urratsetan daukagu ikintza berexi batzuen aitormena. Pixkanaka lortuko du, Errioxa Euskalerrria izatea.

LATXAGA

*EDUN ADITZ LAGUNZAILLEAREN IRAGANALDIA (II)

Azkanengo artikuluan esan genduan **edun*-en adizkien *ninduzun*-en *nin...* eta *zindugun*-en *zin...*, adibidez, “sujeto pasivo”, “sujeto paciente” edo ergatibistak diñoen “absoluto” lenengo ta bigarren pertsonako markak dirala. Esan daigun, oin, *ninduzun*-en *..zun* eta *zindugun*-en *...gun*, ostera, “sujeto agente” edo ergatibisten “ergatiboa” dirala. Bestalde, “sujeto” mota biak irugarren pertsonakoak diranean, onek dira euren adizkiak:

	arek(sing)	arek(plu)	eurek(sing)	eurek(plu)
Biz.	<i>eban</i> (<i>zeban</i>)	<i>zituzan</i> (<i>ebazan</i>)	<i>eben</i> (<i>zeben</i>)	<i>zituzen</i> (<i>ebezan</i>)
Gip.	<i>zuen</i>	<i>zituen</i>	<i>zuten</i>	<i>zituzten</i>

Beti ta danak esan eta esaten dabe “sujeto agente”, irugarren pertsona singularra danean, ez daukala markarik, adibidez: Biz. *euka-Ø-n*, *eukaza-Ø-n*; Gip. *zeuka-Ø-n*, *zeuzka-Ø-n*; Biz. *erabilla-Ø-n*, *erabillaza-Ø-n*; Gip. *zerabilla-Ø-n*, *zerabiltza-Ø-n*, etab. etab. Oneen kideak dira len ipinitako Biz. *eba-Ø-n*(*zeba-Ø-n*), *zituza-Ø-n*(*ebaza-Ø-n*), eta Gip. *zue-Ø-n*, *zitue-Ø-n*, “agente” bape barik, au da, Ø.

“Sujeto agente” edo “ergatiboa” irugarren pertsona plurala danean *-te* ta *-e* dira euren markak. Amen sartzen dira Biz. *eb-e-n* (*zeb-e-n*), *zitu-e-zen* (*eb-e-zan*) eta Gip. *zu-te-n*, *zituz-te-n*. Beste adizki batzuekaz alderaturik, *nindu-(t)e-n*, adibidez, kontuan izan bear da, (*t)e* ez dago or *nin...* “paciente” singularra plural biurtzeko, “agente” plurala adierazteko baizik eta *nin...* orren plurala *gindu-(t)e-n*-en *gin...* da. Gaiñera, (*t)e* onek ez dau *gin...* plural biurtzen berez plurala dalako.

Oin ipiniko dituguz “agente” edo “ergatibo” ta baita be “paciente” edo “absolutoak” bigarren pertsonakoak diranean, euskalki askotako itanoan oindik bizi bizirik dagozenak: Biz. *zo-a-n*, *zo-na-n*, “paciente” singularrak, eta *zo-a-zan*, *zo-na-zan*, “paciente” pluralak, *z-gaz* asita; Lab. *zu-ka-n*, *zu-na-n*, “paciente” singularrak, eta *zitu-ka-n*, *zitu-na-n*, “paciente” pluralak, amen be *z-gaz* asita; Gip. *u-a-n*, *u-na-n* eta *itu-a-n*, *itu-na-n*, geienetan asierako *z-* barik, galdu ebalako, baiña Deba, Mutriku, Zegama, Zumarraga, Urretxu, Legazpia, Ormaiztegi errietan *z-* orrek bizirik dirau; Sul. *zi-a*, *zu-ña*, *zu-zu-n* eta *zuti-a-n*, *zutu-ña-n*, *zutu-zu-n*. *Zuzun* eta *zutuzun*, itano errespetokoak dira. Gip. be, erri geienetan, “cortes”ean, *zitu-zu-n* zarra erabilten da ta ez *zenitun* ibrido barria; Aez. *zu-a*, *zu-na* eta *zitu-a*, *zitu-na*; Sal. *u-e-n*, *u-e-n*, *z-inuen* ibridoa eta *itu-e-n*, *itu-na*, *zintzan*, *izan*-en forma konjugatua errespetoko itanoan; Ronc. *ziu-a*, *ziu-a*, *zunion* ta *ztiu-a*, *ztiu-a*, *zuntion*; ANm. *zu-ta*, *zu-na* ta *zituz-ta*, *zitu-na*; ANs. geienak, *u-e-n*, *u-ne-n* baiña *zu-ke-n*, *zu-ne-n*, Ondarribia, Bera, Lesaka, Etxalar, Oronoz errietan; BNor. *zu-ka-n*, *zu-na-n*, *zu-zu-n* ta *zitu-ka-n*, *zitu-na-n*, *zitu-zu-n*. Amen be, *zu-zu-n* eta *zitu-zu-n* eukeraren lekuko zarrenak eta jatorrenak gorderik itanoan, probatzen dalarik *zenduen* eta *zenitun* ibrido barriak dirala.

Orduan, irugarren pertsonako “agente” edo “ergatibo” singularra Ø (au da, zero, bapez) baldin bada, bere marka berezia galdu dabelako denporaren eragiñez, pluralerako (*t)e* bada ta bigarren pertsonako singularrak, itanoko *ka* ta *na* badira ta *zu* pluraleko errespetokoa, ikusi dituguzen adibide guztietako asierako *z-* ta *zit-* izkiak ¿zer dira? ¿nondik datoz? Esan dogu “sujeto paciente” edo “absoluto” dirala baiña adizkiaren *izan*-en zati konjugatua izan bear leukie, **edun*-en *-u-* erroa loturik adizkia osatzeko, gure teoriak oker ez badagoz. Barriro be, esan bearra dago *z-* singularra *izan*-en *zan*-etik datorrela eta *zit-* plurala *izan*-en *zitzan* zarretik, onela: *za-n* + *u* > *za-u-n* > *z-u-n* > *z-u-en* > *za-b-en* > *ze-b-an* > *eban* eta > *zitza-n*

+ *-u-* > *zitza-u-n* > *zit-u-n* > *zit-u-en* etab. Ez da ikusten beste urtenbiderik. Adizki onetxek dira euskal aditz jokoaren giltza. Irugarren pertsonako adizki onek ondo erabakitzen badira, beste atal guztiak erraz konpontzen dira.

Arazo au ondo aztertzea luzeegia litzake lantxo onetarako, baiña, gutxi gora bera, teoria onen alde egoazen V. Stemph, Schuchardt, Lafitte, Lafon, etab. Mitxelenak esaten eban bizkaieran be, iraganaldian, asierako *z-* badagola adizki batzuetan. Teoria batek esaten dau Biz. *euan*>*eban*-ek *izan*-en *zan*-etik artu ebalako *z-* ori, baiña zelan artu eban iñor ez da ausartu argitzen. Gaiñera, *zit...* “paciente” pluralak, lengoaren kidea, Biz. be bizirik dagoanak, ¿zelan egin eban bizkaierako *zit-u-zan?* *z-an*-etik *z-* bakarrik artuta eziñezkoa da. Len esan dogunez, *izan*-en *-za-n* konjugatua + **edun*-en *-u-* erroa > *za-u-n*, “paciente” singul. ta *izan*-en *zira-n* (*zitza-n*-etik etorria) + **edun*-en *-u-* erroa > *zit-u-zan*, paciente plurala.

Patxi Altuna ta Miren Azkarate euskaltzaiñak idatzi eben: “*Baina ‘ikusi zuen’ forma pasiboa bada, zein da dagokion forma aktiboa?*” Ez ziran oartu *zuen* berbera zala. Amentxe dago len esan dogun giltza. Gaur, *zuen*-en *z-* ori aktiboko “agente” lez esan eta ulertzen dogu, baiña bere sorreran pasiboko “paciente” zan, “agente” Ø izanik. Obeto ikusten da joko au itanoko *zu-ka-n*, *zu-na-n*, *zu-zu-n* adizkietan, *-ka-*, *-na-*, *-zu-* “agenteak” diralako ta orduan asierako *z-* orrek “paciente” izan bear dau derrigorrez. Oihartzabal euskaltzaiñak batuan sartutako adizki orreek ondo probatzen dabe “forma pasiboan” dagozela, bera pasiboaren aurka egon arren. *Zuen* adizkia, adibidez, ez da bape aldatu. Euskaldunen buruetan aldatu zan bere esangura ulertzeko era, asierako *z-* “pasiboa” zana, falta jakon “sujeto agente” biurtuz, aditz jokoaren atal batzuk atzekoz aurrera ipiñiaz. Gaitza bada au ziñezten, zailagoa da Lab. *be-na-zate*, *be-gaitzate*, *be-zaitzate* intransitiboko *be-* “paciente” “agente” billakatzera, benetako “agentea” *-te* izanik. Eta beste ainbat adibide. Ortaz, beñ *zuen* aktiboan ulerturik, analogiaren bidez, *nuen/neban* barria sortu zan, aktiboan au be, baiña “agentea” lenengo pertsona singularra zanean, *nuen*-en aurretik, gaur galdurik dagoan forma zar eta jator bat bear zan pasiboan.

Iker Joseba Laka Guenaga

MAITASUNAREN INDARRA (2N-SARIA)

Simon eta Margarita senar-emazteak ziran. Bizitzaren goraberakaitik gizaroan izan ziran aitama, baina Eduardo euren semetxea jaio zanean poz-pozik jarri ziran... a zan aurtxo potoloa! Gainera, oso ona, lasai eta alaia zan, beraz, arazo barik azi jaken.

Guraso barriak saltoki baten jabeak ziran euren erri-toan, danetariko saltzen eben eta aisetasunean bizi ziran. Aisetasun ori semeari emon guraz, bere sasoiak eldu jakonean, Ekonomia ikasketak egiteko, Ikastetxe Nagusira biladu eben. Ikasle ona zan Eduardo, nota bikainak ataratzeko ez eban aalegin aundirik egin be-rrik. Ikaskideakaz adiskidetzeko ere ez eukan ostoporik. Gauza batek bakarrik lotsarazten eban, neskeen aurrean egoteak. ez ekian zelan egon edo zer esan, zer egin... eta ez eban lelotzat agertu gura.

Edardoren adiskidetariko batek, onetan lagundu guraz, Ikastetxe Nagusian egoan antzerki tailerrera joa-tea proposatu eutson. An, neska-mutil talde batek Arte Ederretako ikasle bategaz asti-orduak emoten ebezan. Toki aretako irakaslea Joakin zan. Joakinek ez eban notarik emoten ezta azterkearik egiten, gauza berezi bat baino ez eban nai: ikasle bakoitzarengandik onena atara, eta Eduardogaz oparo itz egin ebanean aurrean antzezle ona eukala argi ikusi eban.

Eduardo ere bere lotsorkeria gaindituz, saio batzuk egin ostean, mundu aretarako jaioa zana konturatu zan. A zan poza! A bai barruan eroiazan irudimen guztiak gauzatzeko aukera! A be, etorkizunerako bizimodua, baina... gurasoei zelan esan? areek berarentzat beste asmo ezbardina eben. Zer egin? momentuz oberena ixil-tzea zan eta bere ikasketakas aurrera jarraitzea.

Ikasiaz batera, eduardo bere ikaskideakaz antzerki saio bat antolatzen asi zan. Joakinen laguntzaz arrakasta andiko antzezkizuna lortuko eben. Orrez gainera, nes-keenganako kikilkeria osatzen joian, baina ekitaldi are-toan, antzeztekotan egozanean, Eduardo aul sentitzen asi zan. Batzutan ezin eban idatzitakoa ondo ikusi, bes-tetan eskuetan eukana lurrera jausi zan konorte barik.

Denbora galdu barik, gurasoei deitu eta gaixoetxera eroan eben. An, azterketa eta galdera asko egin ondoren, oso larri eta oraindik sendaezina zan (E.M.) deritxon eritasunaren menpe egoala esan eutsoen.

Bi aste geroago, eta sendabide barik, Eduardo senda-tzen asi zanean, gurasoakaz osagilerik ospetsuenarenga-na joan ziran argibide geiagoren bila. Esan eutsienaz, osterak, ez egozan konforme eta aburu geiago eskatu eben. Danak iritzi berdintsukoak ziran eta azkenean onartu bear izan eben onartu bearrekoa.

Askotariko Esklerosiaren mundu ezezagun aretan sartzea oso saila egin jaken. Oraindik gaixotasunaren lenengo agerraldia baino ez zala esan eutsien eta, bear-bada, urrangoa urrun egongo zala. Gaixotasunaren ezaugarriak ondo ezagutu gura ebezan, eritxean zeatz-meatz azaldutakoari adi egon arren, eta geien bear ebana lasaitasuna zala esanda ere.

– Eta urrango agerraldia gogorragoa ba –itaundu eban Eduardok– badago baretzeko osakinik?

– Bai –erantzun eban osagileak– eta orri esker, gero-koa luzatu daiteke. Nazioarteko alkartasuna bere antola-tu egin da eta erakunde publikoakaz batera lan bikaina eta laguntza aundia emoten dabe. Oraintxe emongo deu-tsuedazan orriotan argi ikusiko dozue –esan eutsen, paper batzuk eskuan artuaz– Entzun ondo –jarraitu eban osagileak legetsu– suposatu egizu buru barruko zugaitz bat dala, zugaitz gaixotua. Adarrei ostoa jausten asi jakoz eta, jausiera bakoitzagaz, zugaitza gero eta maka-lago dago. Baina zurea Eduardo adartsu eta ostotsu dago, ez kezkatu, zaintzen badozu luzerako eukiko dogu eta.

Etixeratu ziranean, Eduardo gurasoen goibeltasuna arintzeko aleginetan ibili zan.

– Lasaitu zaiteze. Adituek dinoen legez, su ta gar borrokatzen badogu gauza aundiak egiteko luzarorako eukiko nozue.

Obeto egoanez gero, barriro Ikastetxe Nagusiko asti-tailerrera joan zan. An Joakin eta ikaskideak pozik artu eben eta aurrerantzean bear izango eban guztirako laguntzailerik baldingabekoena izango zirala berba emon eutsoen.

Eduardok antolatutako ikuskizunaz jakin gura izan ebanean, lenengo pertsonai barik eten egin ebela eran-tzun eutsoen, eta denbora galdu barik, arretaz lanari jo ta ke, aste gitxitan arrakasta aundiaz antzeztu eben.

Gurasoek atseginez onartu eben semearen zaletasu-na, onartu eta jarraitu. Lenengo antzezkizunera joan ziranetik, antzezle aparta zala egiztatu eben eta semea-rentzako ebezan egitasmoak aizeatu egin jakezan.

Aurrera jarraitu eben lanean ikusgarri erakus-guraz, beti arrakasta bardinaz lagunduta, baina urte pare bat geroago, egun zoritxarreko baten, Eduardo barriro gai-xotu jaken. Gaizberdura gogorra izan arren, guztien maitasunaz inguraturik, arin indartu zan, baina oraingo ondorioak neketsuak izan ziran eta bera konturatu zanean goibelaldi sakonean jausi zan. Berba-egitean ezin ebazan berbak kontrolatu zanean goibelaldi sako-nean jausi zan. Berba-egitean ezin ebazan berbak kon-

trolatu, beraz toteltasuna nagusitu jakon. Zer egin orduan? berak aukeratu eta maite eban bizimodua guztiz ondatuta egoan. Guraso, ikaskide eta irakaslearen itz kementsuak alperrekoak ziran.

Egunak joan, egunak etorri, Eduardo gorputzez indartsuago egon arren, ez zan tailerretik agertzen eta danak kezkatzen asi ziran. Eurek ondo ekien Eduardo mundurako kementsu, adoretzu eta ausartia zana, orre-xegaitik, eta gieago pentsatu barik, bere etxean agertu ziran.

Etxeko atea zabaldu eutsiengan, gurasoek larritasun andiaz artu ebezan. Ezin eben semea goibelalditik askatu. Egun osoan bere logelan barrututa egoan eta jator-duetan, gurasoak geiago ez larritzeko, zer edo zer jaten alegindu arren, ezin eban askorik jan, ezta berba egin bere.

Joakinek, logelara sartzeko baimena eskatu ondoren, antxe aurkitu eban Eduardo, leioa itxita, ikas-mai baten aurrean makurturik, argi txiki bat biztuta, eta orri moltzoa zikintzen. Agurrik esan barik, bere alboan jarri eta, bigun-bigun, eskuak bizkargainean ezarri eutsozan.

– Ene biotzeko mutila! artu zorro baten geien bear dozuna eta zatoz gurera aste bat edo bi emoteko!

Ori entzun orduko, Eduardo zutik jarri eta besarkada sendo baten estutu ziran. Gurasoen esker ona eta baimena jaso ostean, laguntzeko gogoaz, mutilaren gelara barriro joan zan eta ikas-maaira urbiltzean irudiz beteta egozan orriak ikusi ebazan.

– Eduardo, zer da hau?

– E...e...ez d...da e...e...ezer, le...lelo...ke...keriak –erantzun eban zailtasunez Eduardok.

– Ezer ez? Lelokeriak? –esan eutson Joakinek, Eduardoren toteltasunari gorrarena eginez– Marrazkilarik bikaina zara, mutil! Sartu egizuz orriok zorroan eta ekarri nik astiroago ikusteko.

Landetxea zan Joakin eta emaztearen bizileku ederra. Erritik berrogeita hamar kilometro inguruko bidea egoan. Eldu ziranean, Kontzesik, Joakinen emazteak, alaitasunez artu ebazan. Ez eban Eduardo ezagutzen, baina alkar besarkatu ostean betiko adiskide sentitu ziran.

Bere senarrak beste urte ebazala izan arren, eukan neska itxuraz eta ain umore onaz, gazteago emoten eban. Etxea aundi xamarra zan, aspaldian baserri itxura euki arren, jauretzea izan zan, inguruan lorategi polita eta aurrerago baratz txikia eta zugazti eder bat eukazan.

Senar-emazteek etxean ikasle edo adiskideren bat eukiten eben geienetan, eurek seme-alabarik ez ebelako eta gaztetasunaz inguratuta egotea atsegin izaten jakelako. Eduardo eltzean neska bat aurkitu eban, Elisa.

Elisak Eduardok baino urte pare bat gitxiago eukan. Naiz eta bere errikoa izan, ez eben alkar ezagutzen eta gure mutila barriro len baizen lotsakor sentitu zan. Orain, gainera, bere gaixotasunaren ondorioz, lotsakorago.

Neskatilak aingeruen irudikoa emoten eban, narru zuria, ule argia, begi urdin-urdin gozoak, eta bat batean, eskuak luuzatuz, eduardorenak artu eta masailetan

musu eder bi emon eutsozan. Zer egin? Zer esan? Bere toteltasuna erakutsi? a lotsa! Eta une aretan Elisak esku bat Eduardoren ezpainetan eta bestea berenetan jarri eban.

– Elisa gormutua da jaiotzez –esan eban Kontzesik, une eder a autsiz– Txikitandik gurera ia udaro etortzen da, bera ere antzezlaria da, zu legez –Eduardoren arri-dura somatzean, jarraitu egin eban– Elisaren arloa mimoa da, aurrei bakarrik erakutsi gura deutse bere antzertia, baina zein ona dan ikusteko aukera laster izango dozu.

Orrelaxe zan. Gaba aretan, afaldu ostean, Elisak izugarrizko saio bat eskeini eutsen Eduardok, ago zabalik, ezin eban ikusitako sinistu. Gormutu batek olango adierazmen aberats eta ederra! Benetan ikusgarria! Su ta gar txalotu ostean, bere ezin-esanaren bidez, berak ere, mimo antzertia ikasi eta menperatu gura ebala adierazi eutsen eta Joakinek, Kontzesik eta Elisak, pozez beterik, gogo beraz animatu eben.

A zan Eduardoren itxura-aldaketa! Alaitu, osatu, indartu eta... gertatu ere! Maitemindu egin zan! obeto esanda, alkar maitemindu ziran Elisa eta bera. Bien begiak alkarri josita, ez eben barbarik bearrik. Keinuen izkuntza ikastea oso erreza egin jakon, baina obeto ikasteko bien gurasoei beste astebete an egoteko baimena eskatu eutsien.

Gertatutako berriak jakin ebezanean, Eduardoren gurasoak pozaren-pozez Jaungoikoari eskerrak emon eutsoezan. Biotzeko semearen zaletasuna berreskuratuta eta maitasuna batera, a bai poza!

Egunak aurrera, gure bikotearen bizitza poz bete zan, beti alkarrekin, maitasunean eta ain ondo egiten eben lanean, arrakasta osoz. erriz-erri antzezten asi ziran lengo antzerti taldeagaz. Mimo saioak egin ez ezik, antzerti zuzendari lana be egiten eban Eduardok.

Zoritzarrez, dana ezti gozozkoa izan ezina da eta Eduardok oso ondo ekian. Urte batzuk geroago, indarge zentitzen asi zan, bere gorputzari mogikortasuna moteltzen asi jakon eta, gogor borrokatu arren, andik ilabetera gure mutil ausarta gurpildun aulki baten gainean ibiltzen zan.

Amaituta egoan Eduardoren bizitza? Ezta urrik emon bere! Adiskideak eta Elisaren maitasunaz babestuta, beti bularra aurreratzen, Joakini ainbat atsegin jakozan marrazkiei, lagun-talde osoaren lana oinarri, gorputza emon eutsiezan eta txontxongilo talde ospetsu bat kale-ratzea lortu eben. Asmo geienak eta zuzenketa lanak Eduardorenak ziran.

Berari buruz izan neban azken berria berak ere txontxongiloak trebetasunaz erabiltzea lortu ebala izan zan. Guzti au lortzeko gauzarik garrantzitsuena auxe zan: maitasuna, eta Eduardo beti aretaz inguraturik bizi izan zan.

BAKIOKO SAN FERNANDOKO KAPILEA

1937. urteko apirilaren 30ean jausi zan Bermeo faxisten eskuetan. Maiatzaren 6an, Bakiorantzako norabidea artu eben, Matxitxako inguruetan egozan Eusko Gudarosteko gudarieri erasoteko. “*Frecce Nere*” (gezi baltzak) izeneko italiar-espainiar guda-talde mistoko mila mutil aalegindu ziran euskalduneri atzera joan eragiten, baia ezin.

Bien bitartean, egokerearen estuasuna ikusita, Bakio-ko agintariak, Leandro Oraindi alkatea buru zala, erria utsituteko agindua emon eben. Alan bada, maiatzaren 1ean, erritar askok, geien-geienak, errefuxiatuak eta agintariak ies egin eben erritik, faxistak ganean etozalako. Erria ia utsik lotu zan, atzeraka joiazan euskal gudari batzuk izan ezik.

Beroneek **Iata** mendian eginda eukezan lubagietan sartu ziran, faxistak noz etorriko, areeri bertan aurre egiteko usteagaz. Artean, “*Itxasalde*” batailoiko gudariak, bakiotarrak batzuk.

Maiatzaren 9an, Matxitxakoko guda-lerroak uts egin eta egun beratan jausi zan, bada, Bakio faxisten eskuetan. Erria utsik egoan.

Erria artu ostean, egun batzugarrenean, maiatzaren 12an, asi ziran faxistak **Iata** mendian gora, arerioak euren jagon lekuetatik urten eragin eta andik asagora bota gurean.

“*Frecce Nere*” italiar-espainiar 4. erregimentu mistoko lelenengo batailoiko guda mutilak ziran. **Iata** mendiko eraso asita egoan.

Eskaldunen jagon lekuak eta adorea obeak izan arren, lortu eben, azkenean, faxistak euren asmoa, maiatzaren 19an, baia. Zazpi egunean eutsi eutseen, jo ta su, euskaldunak faxisteri **Iata** mendiko bizkarrean. Aalegin orretan, alderdi bateko zein besteko gudariak galdu eben bizia bertan, **Iata** mendian.

Eskaldunen aldetiko barririk ez bajaku eldu be, faxisten alderdian burrukaldi atan ildako batzuen barri bado- gu, beintzat. Seguru antzean, askoz be geiago izango ziran.

Burrukaldia maiatzean izan bazan be, andixik eta 4 ilabetera, irailaren 12an, **Iata** mendiko bizkarrean agertu zan “*Frecce Nere*” guda-taldeko espainiar gudari baten gorpua, José Rubio Cuecas izenekoarena. Il eta lau ilabete garrenean. Berau guda-talde orretako 4. erregimentu-koa zan. Alan egiaztatu eban erregimentu orretako kapi- laua zan On Giuseppe Pio Poli jaunak (1937ko zemen- diaren 12an).

Bizkaia galdu zanean, faxistak aurrera egin eben, San- tander alderantza. Bertaratu baino leenago, “*Frecce Nere*” guda-taldeko 3. erregimentuko lelenengo batai- loiari “*Monte Jata*” izena emon eutsoen. Kataluniako frontean, ostera, 1. erregimentuko lelenengo batailoiak eroian izen ori 1938. urtean.

Kapilea

Madriko Museo del Prado deritxonaren zuzendaria izan zan Fernando Alvarez de Sotomayor y Zaragoza jauna, Ferroleko galiziarra, sasoi atako Espainiar artista, margolari ospetsua bera, San Fernandoko kapilea eregin eragin ebana, 1937. urteko maiatzaren 12an, **Iata** mendi-ko erasoan, ildako izen bereko beraren semearen eta beronen soldadukideen omenez. Ildako semea, Fernando Alvarez de Sotomayor y Castro izeneko alferez probi- sionala zan, “*Frecce Nere*” italiar-espainiar guda-talde mistoko gudamutila. Beragaz batera, beste bederatzi espainiar gudari eta sei italiar, kapitain bat, teniente bat, sarjentu bat eta 3 gudari, il ziran **Iata** mendian egun atako burrukaldian, aurki.

Fernando Alvarez de Sotomayor y Castro jaunaren eriotza-agiria eskatu eutson Bakioko udalari A Coruña-ko legegizona zan Manuel Sendon Amado jaunak, 1937ko irailaren 6an.

Kapilea **Arrilabanaga** izeneko inguruan dago, **Uriar- te** baserriko Patxo Uriarteri erositako **Ametzetabaso** ize- neko basoko lursaila baten.

Kapilearen proiektua Pedro Muguruza Otaño jaunak eginikoa zan, gizon au Arkitektura Zuzendari Nagusia izan zan sasoi aretan Espainian.

Eregigina, barriz, Raimundo Bilbao izan zan.

Kapilearen zabalpena 1943ko garagarriaren 24an, zapatuz, egin zan. Erriko agintari eta pertsona esagura- tsuakaz batera lagun asko batu ei zan bertara. Kapilea Mungia-ko artziprestea izan zan Santiago Ganboa jaunak bedeinkatu eban, mezea emon eta gero. Orretan Bakioko umeen eleizako abesbatzak be esku artu eban.

Kapilearen ardurea Fulgen Garairen eskuetan itzi eben, eta zabaldu zanetik eta 1955. urtera arte, apur gorabeera, urtero emoten zan mezea bertan San Fernan- do egunean (maiatzaren 30ean), Fernando Alvarez de Sotomayor y Zaragoza aitak ordainduta. Gogoratu San Fernando santua dana Espainiako Falangearen santu jagolea.

Altara ganean, San Fernando erregearen esfingearen margokia egoan. Altarearen beeko alderdian, Fernando Alvarez de Sotomayor y Zaragoza jaunak berberak eginda, beraren semearen eriotzearen irudi antzeko eran, beste margoki bat egoan. Alboko orma bietan, bestetik, arrinabarrezko ilarri bana. Bertan idatzita egozan **Iata** mendiko bizkarrean egun atan ildako gudari faxisten izenak:

Eszerrekoan, espainiarrak:
 “Fernando Alvarez de Sotomayor - alférez

 Manuel Gil
 Daniel Díaz Díaz
 Jerónimo Fernando Ardila
 Manuel Fernández Martín
 Agustín Palomo
 Alfredo Pedrajo
 Daniel Ramatar
 Josë Vázquez Lahera”

Eskoikoan, italiarrak:
 “Serafino Migazzo - capitán
 Antonino Terranova - teniente
 Antonino Mariano - sargento
 Modesto Comandone - soldado
 Enmanuele Savarino - soldado
 Luigi Maiorino - soldado”

Bizkaiko Gotzaindegiak, 1944. urteko dagonilaren 4an, emon eutson Eleizearen baimena Fernando Alvarez de Sotomayor y Zaragoza jaunari berak eregitako kapilan San Fernando santua gurtuteko fundazioa sortuteko.

Orretarako, 22.582,85 pezeta emon ebazan jaun arek.

Alan, diruaren zati bategaz, urtero 13 meza esateko ziran, ilabete guztietan ileko 12. egunean bana eta bestea maiatzaren 30ean, San Fernando santuaren egunean. Ganerako dirua kapilea bera konpondu eta kandelak eta orioa erosteko zan.

Urrengo egunean, dagonilaren 5ean, Alvarez de Sotomayor jaunak Bakioko abadeari, On Antonio Alegria, bialdutako eskutitzean, **Arrilabanagako** kapilearen inguruko egitekoak arean aldatuteko eskatu eutson.

Alantxe, urteko ile guztietako 12. egunean kapilan mezea esan bearrean, maiatzetik urrira arteko ileetan mezea bertan kapilan baino ez esatea proposau eutson, ganerakoetan, erriko eleiza nagosian esango ebal, aro txarra eta abar zala-eta.

Sakristau eta mezautilarentzako aurretik dirurik iminita ez egoanez, gastu areek beste alderditik ordainduko ebazala jakin eragin eutson abadeari.

Urte atako gastuok estalduteko, bada, 100 pezeta emon eutsozan abadeari.

On Antonio Alegria jaunak, Bakioko abadea, diru kopuru areri naikoa eritxi ez, aurki, eta diru geiago (30 pezeta mezako) eskatu gura izan eutson Alvarez de Sotomayor jaunari. Gotzaindegiak, oster, Alvarez de Sotomayor jaunak eskainia onartutera beartu eban abadea. Beronek eskatutakoari larregi zala eritxi eutson Gotzaindegiak, Gotzaindegi eta Bakioko abadearen arteko esku-titz joan-etorrian agiriko danez.

Eleizatxu ori, bada, ez da inoz baseleiza izategino eldu, ez jatorrian ez eta geroko erabilkeran be, kapilea besterik ez da izan. Erriak ez dau inoz aregazko ezelango oneraspenik euki. Oker ez banago be, azkenengo mezea edo prozesinoa 1955. urtearen inguruan egin zan. Arrezkeroan, bapez.

Kapilea, Armintzako bidearen ondotxuan dago, bidearen azpitxuan egon be. Armintza bideko goiko ikuspegi nagosira eldu baino leenago, Armintzako bidetik urten eta eskoatara, **Andiño**ko basobidea (**Portumeko** leengo bide zaarra) artuten dan lekutik 30 metrora, eskoatara barrian.

1981. urtean arrinabarrezko ilarri areek bearen ganean txikituta agiri ziran eta San Fernando erregearen ganeko margokia nonork ostuta egoan. 1982. urtean, barriz, baten batek zatiak batu eta leenago egozan lekue-tan eta eran atzera iminita agiri ziran, zatiren batzuk gal-duta egozala.

1984. urtean, oster, arriok, altarea eta barruko geiena apurtuta eta galduta egozan, betiko. Urteotan, eiztari eta basogintzan ibili diranentzako babesleku baino ez da izan kapilea.

Gaur egun, teiltua beeraren ganera jausita eta barruak utsituta, kanpoko ormak sasi artean baino ez jakoz ikusten. Or dago, bertan beera itzita, betiko, noz jausiko, betiko noz desagertuko.

Iturri bibliografiko eta dokumentalak

- “The Tree of Guernica. A field study of modern war”, Hodder & Stoughton, George L. Steer, 1938.

- “Ermitas de Bakio”, Pablo Zurimendi, 1984, argita-ratu bakoa.

- “Antxiñeko I, Historias de Bakio”, Alejandro, Espe eta Sabin Uriarte, argitaratu bakoa, 1989.

- Bakioko Udal Agiritegia (BAUA):

- “Registro de salida de comunicaciones del Juzgado Municipal de Baquio”, 3402 - 0014/002 (1935-1940) - JUZGADO.

- “Registro de entrada de comunicaciones del Juzgado Municipal de Baquio”, 3401 - 0014/001 (1935-1940) - JUZGADO.

- Bizkaiko Eleizearen Historia Agiritegia (BEHA):

- “Papeles varios”, A-053 mikrofilma, 0258/004-00 (doc.14, doc.27, doc.31, doc.35), 1944.

**Iniaki MARTIARTU
 BAKIO**

2006ko abendua

JUAN BAUTISTA ELIZANBURU (1828-1891)

Sara'ko semea da eta buru argiko ikaslea. Frantze'ko gudarien kapitai izan zan baiña Napoleon azpiratua izan zanean, Sara'n geratu zan bizi izaten eta euskaltzaleakaz artu-emonetan.

Ez zan izan idazle ugaria, baiña berak idatzitako olerkiak ederrak eta oso ezagunak doguz. Piarres Adame elebarria be berea dau.

21 olerki daukaguz bereak eta guztiak ondo landuak.

Etxaide'k auxe diño: "Elizanburu'k itz neurtuetan ez ezik itz lauz ere landu zun gure euskera eta idazle zarretan -berrialdi atarian ba'da ere- au dogu ezpairik gabe, bai bertso eta bai prosari erri-mintzairaren kutsurik gabe garbikeria erantxi diona".

Ona emen zatitxu bat:

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia;
beraren gibelean baitut nik herria;
jadanik dut aditzen, zorion aundia!
Ezkila maitearen hasperen ezta.

PEDRO IGNAZIO BARRUTIA (1682-1759)

Aramaio'n jaioa, baiña ezkondu zan ezker bere bizi-tzea Arrasate'n igaro eban eta antxe egin eban eskribau-lana edo notaritza.

Idazle au ospetsua egin dauana, beronen antzerkia da, euskeraz lenengo antzerkia, egoaldean beintzat. Misterio de Navidad ipiñi eutson berak izena, baiña arrezkero aspaldion esaten jako "Gabon-gabeko ikusikizuna".

Antzerki txiki bat da, ondo antolatua. Ba-dau gatza ta giarra..

Azkue'k argitaratu eban lenengoz: Azkue'k ba-zekian naiz euskera-aldeetik naiz antzerki-aldeetik zer zeukan esku-artean: "Erderazko gauza asko eta erderakadak geiago euki-arren, guztia agertu nai izan dogu orain, ia 200 urte egin eban erara" diño Azkue'k.

Pastoralen, Noelen eta Marijesen bidetik doan antzerkia da.

Emeretzi atal aurkitu eutsozan G. Aresti'k, gaboneta-ko jazokizun gutiak azaltzeko.

Ona emen zatitxu bat:

Gaur dala gabon gaua, gaur dala gabon
Gaur egiten jaku Jangoikoa gizon
Os begi danboliñak, lutua ken bidi
Fiesta degiogun infante oni
Zerureanik dator gure artera
Erratuai bidia erakustera.

FELIPE ARRESE BEITIA (1841-1909)

Biotz sutsuko olerkaria izan zan eta aren garra orain-diño ez da illundu, diño L.Mitxelena'k.

Otxandiotarra dogu eta gasteiz'en ikasi eban marraz-kilaritza edo "dibujo" eta ortik sortu jakon santugin izateko lerea. Bizkai'ko eleiza askotan dagoz Arrese'k egin-dako santuak.

Gaiñera auzokoen laguntzaillea zan eta bere etxera joaten ziran asko aolku-billa.

Bere olerkiak apur bat negartiak dira, karlostarren gudetan foruak galdu genduzala gogoratzen daualako.

Ona emen zatitxu bat:

Neure biotzeko amatxu zarra,
antxiñako ama euskera,
seme leial bat orain datortsu
azken-agurra emotera;
ainbeste gerra goitu ezinda
danori atsotu zara,
zaurien zauriz galdu galduta,
amatxo, zoaz iltera.

Eta beste bat:

Nun dira bada zure semiak (10)
Foru ta euskera zaliak? (8)
Nun dira, bada, Tubal, gure aita(10)
Zure ondorengo garbiak?(8)
Nun dira bada zure ume zintzo (10)
eta leialen legiak?(8)
Nun dira orain, orain negarrak(10)
Nun dira nire begiak? (8)

JOSE MANUEL ETXEITA (1842-1915)

Mundaka'n jaio ta il zan, baiña erbestean asko ibilli-ondoren.

Bilbao'n Nautika ikasi eban.

Manila'n alkate izatera eldu zan eta an bizi izan zan luzaro eta andik

biurtuta, azkenengo urteak Mundaka'n igaro ebazan.

Iru liburu dira bereak : 1) Josetxo (elebarria, 68 orrialde). 2) Jaioterri maitia. 3) Au ori ta bestea, (neurtitzak dira, beste liburuetan agertuak.)

Josetxo da guztiak irakurri-bearrekoa.

Irakurri egizu aztertzeko

ARTZAIN ABESTIA

Egunabarraz itzartzen gara,
mendiratzeko ardiak,
ikusgarriko artaldiakaz
beteten doguz mendiak.
Ortik-emendik joten dituguz
alboka-soiñu zoliak,
Olantxe beti izan oi dira
Artzaiñen zorakeriak

OLAZAR' tar Martin'ek

ZORION-BILLA

Oinkada astitsuz noraezean nabil
 ondar zabalean kezkatu
 kresal usaia sudur-aoz miztuz
 begiraldi utsalez,
 urrun begira, ezer ikusteke
 ene baitan bil-bildua
 gogoz murgil, kixkurtua
 bizitzarekiko zerki ta
 galde-zertxo izkutuai
 tajuz erantzun nairik.

Bizitza
 almenez gaitua
 eta ederrez gaiñeztua,
 “itsu” batzuentzat
 kea besterik ez omen,
 aize, lera min, asperen
 itukin urtez, urteen joanean.
 Gogo berriz, logaletsu...
 ta azkenik
 azkena
 asmakizunik jakintsuenaz ere
 iñork asma ez dezakena.

LIZTORRAREN MIZTOA

Ta zoriona?
 Zer da? Ametsunen bat?
 Maskor soiñulari?
 Au altxor ez-ezaguna!
 Ze pitxi ote ori?
 Ametsarri, basalore birjintsu
 edabe edo pozoi beargarri,
 izpi-bits dizdizgarri
 gaztetandik
 negu zartzaraiño, itsuki
 lanbro tarteka
 mozorro atzipekari
 zoratzen gaituana?

Agian, panazea
 gaitz eta oker guztien sendagarri?
 Ala ego-aize, sargori
 orbel ustelkor
 aldiak dardaraz daramana?
 Nolanai ere
 aren urri ta exkaxian
 uts eta putz
 gogozko miligramoz neurtzen dana?

Ustez lortuarren
 motz irauten.
 Aztamuka bai goaz
 amets gardenak iruten.
 Baiñan ondoz eta erroz

beti lengoan gera
 aratin, ankazgora.
 Umexurkiro, olatu naiz izarrai begira,
 elburu, mana, bide berri...
 nik al dakit zeren billa!
 Zenbait amets-iturriren atzetik
 mendian, aldapan gora ta bera
 oiartzun eiztari.
 Ai! Iratxo igeskor!
 I bai abil munduan!
 Ixpillu lillurazle biurturik.
 Gu, berriz, begilauso.

IRRITSEN MERKATUAN

Ez, ba, galde neri
 zer dan zoriona.
 Dakidantxo auxe,
 ez besterik:
 Edergandiko sorburu danez
 ez da dendetan erosterik.
 Ez dago iñun salgai, zorionez!
 Pizipoz, kaixoarte,
 sendi gozo, xamurtasun
 betikotasunaren kantau alai

DANAK

Lurretiko intz eztitsu ta
 sortzetiko baiño
 bana-banan eta batera
 zerutiko doai dira
 bizitza dirauteño

LANBRO NARRAX

Eta diru-truk
 baliogarririk zer? Gezurrezko
 Gure mundu ontan
 (lur loien jopu bai gera)
 kalkulatzaille
 kontsumozkoan
 au soilki erosgai: GAUZAK!!!
 Noizpenka sagar makatz
 mozorroki
 txantxoak.
 Iñauteri jaietan
 gure utsune
 iruzur eta
 frakasuak
 erdi kukuka estaltzeko,
 etsipen, naigabe ta biotz-lore igartuak
 itzalgaizka txurizkatzeko.

BIZITZA

INGURUARI SOALDI

Uriko loi ta zementu tartean
egoera latzean,
zenbat galai
zenbat bikote muxumerke, maita kuttunka
bizitzari ezin abes
(begiak begietan, ezpaina ezpaina)
zenbat gizakimu (edo giza-tximu?)
a beraskume ta bestelako
zenbat martinkontra
etorkin eta bertako
sekula ez konforme ezikaitz
erroi-egoak narrax arrotuz
egazketa motelez
bizitza urratuz
gaua egunargi biurtuz
dana zillegi bailitzan
ustasun minkor ta garratzean
kalez kale errondari
noruntz ez jakiñean
izadiarekin, trixtura labaiñean sorleku
nagirik ez soiñean
eskuz esku bizi-edo naiean.
Ubel ezpaina, zurbil aurpegiak
begi txinpartik gabe
frutu-arbolari eska-oska
eroparrez trixte (oskol txikortuak)
Jainkorik ez-eta ustez jare
ez noski burujabe,
jainkotxiki zenbaiten aurrean
grina leize sakonean
auspez gurkaq, belaunbikatuak.
Morroi gajo,
gazterik muskildu ta zarkituak.
Joputza ez da aienatu
bai itxuraz eta deituraz aldatu.

LANDER ETA BAKAR

Bizitzaren eguerdian
ametsak metatze garaian
txortaka danak irentsiz
zorian orde eta bearrez
beso-zaiñetan ernagarri ugari.
Negarra barnean, arlote
atsegin algararen txorabioan
eroso nai ta kalpartsu
gizabidez antzu,
aboa erdal-sugez jariotsu
soiñu zaratatsuz ordi
ardo mozkor saieska, intziritsu
itxura utsezko poz-oiu jaurtika
maiz gizon antza galduz
gixon eme billakatzuz.

Bizitzaren egarri, ari oleska
ta alare,
bizimuin ta iturburuari
amorrus aginka, oska.

Ai gure belaunaldiaren billustasuna
an-or altxoar argiz beterik
baiñan ezin utzi bekosko illuna.

SASITZAN KATIGU

Zenbat eta zenbat eskale-zurrian
urrezko iparra ta lillura galdurik
kadentsu ibilleran, burubero,
gazte-giroz berriaizen mirabe
xoxoturik, ogi eske.
Diru-zun kutizitsu
goxotasunik aurki eziñik.
Sumiñez, destaiñez, gurasoak minduz,
eskuak gorrotoz luzatuz,
irripar ozpintsuz, begiz adieraziz
gure erruz eta irritsez
dirala bizira esnatu
ta guri dagokigula, apenlegez
euren fetitxeak asetu
gaztaro-tolareak zukutu bait-ditu.

Burua galdu gabe kaikutuz,
Beste zenbait zoroxka
sailka naiz bakarka
eskale zurrian.

Gizona, gauza guztien neurri izanik
ez ba jakin nola kilima biotza
nola berorri itzul poz-askatasun galdua
betetasunean bizitzeko
bultzakada sendoa, bizimin egiazkoa.
Nola irrintzika jarri
gure ainbeste ametsen iturri.

Buruz bera Goiko Arek ditu jarriak
gure zorian sistimak.
Bizitza ulertzeko, aren ertza txastatzeko
era guztiak dizkigu iraul.
Ta bidekaturik, norabide okerretik
ote goazen zalantza degu
burutzat biotza (ala dirua, almena?)
–bizimotor berriak– arturik.

Zerk egiten du zorioneko gizona?
Mendiei ots dagiet
gure giza auzi larria
eta oiartzunak erantzun:
– MAITASUNIK!!!
Itz sorgintsu, tamalez
gaur oso xuertua,
grina ikaraz eta
irrits joeraz
ar-eme arazo uts biurtua.
– Nola?
Inguruan ditugunen zerbitzuan
jartzen geranean:
artu bearrez, emanez!
Auxe da animaren aberaskia.

EGAÑA'tar Gotzon

GAURKO FILOSOFIA: BESTE MUNDU BAKOAK

Gaurko filosofia ez dago goi-maillan kokatuta, berengo maillan dagoala dirudi. Ez dago filosofo aundirik, Bergson edo olakoren bat kendu ezker, eta dagozenen egazkadak be ez dira arranoaren antzekoak, urrago dagoz oilloaren egazkada laburretatik.

...

Matematikazko burubide edo lojikaren bidera sartu dira, ez Euklides'enera, ezaugarrien edo sinboloen lojikaren bide-tik doaz.

BENTHAM:(1748-1832): Onurearen filosofia (utilitarista).

Au gure aldia baiño apur bat lenagokoa da, baiña gaurkoaren oiñarria dalako dakargu emen.

Iraultzen aldi bizi izan zan. Alde batetik Europa'ko langintza-iraultza eta bestetik Ameriketara eta Frantze'ko politikairaultza eta or sartzan diran aldakuntza asko bere irakatsiak kontuan artuta egiñak dira.

Onuraren filosofia da berea: Gizonak atsegiña ta zoriona billatzen dauz eta nekea ta samintasuna alboratu, eta ori da beretzat moralaren edo jokabide-iztiaren ardatza, orretarako bideak agertu b ear dira filosofian: "Zorionik aundiena, giza-kirik geienentzat".

JOHN STUART MILL

Auxe da Bentham'en eta onurakortasunaren jarraitzailea, baiña zerbait aldatuta: Ez da edonista edo etsegin-zalea. Arzoa aztertzen ebillala kirioz gaisotu zan, 21 urtekoa zala.

Asko idatzi eban filosofiari buruz eta 1861n. urtean liburu bat argitaratu eban onurakortasunaren filosofiari dala-ta.

Bizitzaren elburua zoriona dala eta orretara doazen ekin-tzak dirala onak diño, orretara jo bear dau gizarteak bere legeak az eta bakoitxari itzi bear dautso bide ori billatzen eta orren aurka doana galerazteko legeak egin.

CHARLES S. PEIRCE (1839-1914): AMERIKETAKO PRAGMATISMOA

Peirce da pragmatismoaren sortzaile, baiña bere idazlanak bera il ondoren argitaratu ziran.

Lojika'n ezaugarriak edo sinboloak artu bear dira kontuan, semiotika da filosofia. Ezaugarria bera norentzat dan eta nok artzen dauan ikusi bear da, dana gizarteko gauzea dala eta ez bakoitxarena. Orrek alkar-maitasunera eroan bear gaitu (agapismora), Joan'ek bere ebanjalioan diñoan lez, Jainkoa maitasuna dalako.

WILLIAM JAMES (1842-1910)

Harbard'eko irakaslea izan zan baiña Britania'tik artu eban enpirismoa ta onurakortasunaren bidea. Ideiak egiak dira, onurakorrak diralako.

JOHN DEWEY (1859-1952)

Mitxigan'en, Chicago'n eta Columbia'n irakaslea izan zan eta asko idatzi eban. Pragmatista da, baiña jokabide orren barruan instrumentalista: Ideiak bizitzarako bear diran lanabesak dira.

...

KANT'EN JARRAITZAILLEAK: Edesti-bidea.

XIX gizaldia edesti arloan arduratua zan, erromankeriari atsegin jakolako gai ori. Orregaitik agertu ziran Aita Santuaren edestia, Alemania'rena, Erroma'rena, Greziarena eta abar. Baita naikoa indar izan eba edesti-elebarria.

Ortik sortu zan filosofian be edesti-bidea edo "historicismo".

DILTEY (1833-1911)

Auxe da edesti-bidearen iraslea, fundadorea. Bide onetako filosofoak Kant'en Kritikak onartzen dabez, burubide utsarena (razón pura) eta egiterako burubidearena, (razón práctica), baiña beste bat bear dala diño, "razón histórica" edo edestiarren burubideko azterketa. Edestia ez da "a priori". Ez beti a posteriori be.

Diltey'ren pentsaerak oneik dira: Edestia egiteetan agertzen da baiña ulertzen jakin bear da. "ermeneutika" bear dau.

Kant'en jarraitzaile barrien artean ez doaz lengo bidetik bide barrietatik baiño eta positibisten bideak alboratu nai dabez.

Ikastetxe Nagusi bitan agertu zan jokabide ori Alemania'n: Marburgo eta Baden'ekoetan.

MARBURGO'KO ESKOLEA: Cohen (1842-1918): Onek zientzi-jakintza zer dan azaldu nai dau, a priori eta a posteriori'ren bitartean. Eskola orretakoak dira, baita, Cassirer (1874-1945), eta Natorp (1854-1924).

BADEM'EKO ESKOLEA: Windelband (1848-1915) eta Rikert (1867-1936). Oneik be Kant'en irakatsiak eta edestiko jazokizunak alkartzen dabez.

...

IZKUNTZAREN FILOSOFIA

Beti izan da izkuntza eta pentsakeren arteko zer-ikusaren ardurea filosofoen artean, Platon eta Aristoteles'egandik asita.

Baiña gaur ikuspegi barriak agertzen dira: Filosofia argitzeko bide lez artzen dabe izkuntza eta arlo bietan arazo bardiñak aurkitzen dabez

Anglosaxoien artean nagusi da filosofi barri au 1950n. urtetik 2000n.era.

Talde bi daukaguz izkuntzaren filosofi onetan: 1) Filosofiari erantzun lojika ta matematikaren bidez. Orrelan Bertram Russel (1872-1970). Au jaingo bakoa da eta Nobel sariduna. Lojika'ko atomo ta molekulen bidea azaltzen dau (esaldi bakarrak= atomo, esaldi osotuak=molekula); eta Wittgenstein (1889-1951). 2) Eguneroko izkuntza azterten dabe: Gerge E. Moore (1873-1958) eta Wittgenstein, bigarren bizitzaldian.

Guztien buru Gottlob Frege da (1878-1925), Lojika matematikaren sortzailea.

BEINA'KO TALDEA: Oneik neopositibistak ziran baiña naziak sartu ziranean Ameriketara iges egin eben, Juda'tarrak ziralako. Ezin egin izan eben gauza aundirik: Scillik (1882-1936), Carnap (1891-1970), Neurat (1882-1945), (Hahn (1879-1934). Guztiak eukin egin bide bat: zientziak bateratu bide lez Lojika matematika artuta eta neopositibismoari jarraituz. A posteriori diran esaldiak ikusi egin bear dira egia diran, ez dago ondo arriak jausten diralako, arri au be jausiko dala esatea.

...

FALSIFIKAZIONISMOA: Kare propper (1902-1994), filosofo aundia. Onen ustez indukziñoaren bidetik ezin leike ezer ziurtatu. Adorno filosofoa jarri jakon aurka. Zurrak dira baiña esaldi analitikoak tautolojiak dirala-ta sintetikuen azter-tzea egiten dabe. Or dagoz Palanyi (1891-1976) eta Kuhn (1922-1996) eta beste antzeko asko, gaur be bizi diranak.

OLAZAR' tar Martin'ek

PIRAMO ETA TISBE (Babilonia)

Semiramis'en erregetzako aldiari bizi ziran Babilonia'n Piramo mutil gaztea eta Tisbe neskatilea.

Etxeak alkarren ondoen ebezala, auzo baten bizi ziran biak eta ume-umetatik alkarraz jolasten eben.

Sasoira eldu ziranean adiskidetasun ori maitasun bero biurtu zan eta alkarragaz ezkontzea erabagi eben.

Sasoira eldu ziranean adiskidetasun ori maitasun bero biurtu zan eta alkarragaz ezkontzea erabagi eben.

Piramo joan zan Tisbe'ren gurasoengana eta onei alabea eskatu eutsen emaztetzat, baiña gurasoak ezetza emon eta alabea geiago ez ikusteko agindu eutsoen.

Baiña maitemiña bizia zan eta gazte biak aurrera jarraitu eben egunero alkarragaz berba egiten, ezkutuan ba'zan be. Etxe bien artean bitartetxu bat egoan eta bi aldetan jarrita, luzaro egiten eben berba gazteak, alkar ikusi barik. Orrelan jarraitu eben urteetan, suari sugarri emoten eutsoela.

Baiña aspertu egin ziran alkar ikusi barik alkarrari berba egite orregaz eta egun baten bero-bero erabagi eben erritik kanpoan egoan toki baten alkartzea. Leku orretan masusta zuriak eukazan zuzat bat egoan.

Urrengo egunean, esandako ordurako joan zan Tisbe masusta-zugatzaren ondora eta mutillari itxaroten egoala,



bat-batean sastraka-artetik leoi bat agertu zan. Biden joiala buruko zapia jauki jakon.

Urreratu zan leoia eta zapia usaindu eta gero agiñen artean artu eta jolasean erabili eban.

Leoiak muzturak odolez zikinduta eukazan, lentxuago pizti bat

jan ebalako, eta zapia be odolez beteta itzi eban.

Leoiak alde egin eta laster eldu zan Piramo eta neskearen buruko zapia alan ikusi ebanean txarrena pentsau eban, piztizarren batek jan ebala Tisbe maitea. Aren naigabea eta ito-bearra!

Neurea da errua! –iñoan– Neuk ekarri dausat eriotzea! Eta etsita, zorrotik ezpatea atera eta bere biotzean sartu eban. Antxe jausi zan, neskatillearen buru-zapiaren gaiñera.

Izua igaro jakonean, etorri zan barriro Tisbe eta ikusi eban Piramo bere zapiaren gaiñean ilda. Eta esan eban:

Zertarako bizi Piramo barik! Onen biotzetik ezpatea atera eta bere biotzean sartu eban eta bere maiteren gaiñera jausi zan ilda. Eriotzeak alkartu ebazan betiko!

Masusta zuriaren zanak iruntzi eben gazte bi orreine odola eta arrezkero masusta gorritzak emoten asi zan landara au.

OLAZAR'tar Martin'ek

Testigantzak

JOAKIN BERMEJO (ANDOAIN)

Andoain'en egoan parroko matxinzaleak sartu ziranean. Gero iges egin eban eta orain Baiona'ko Seminarioan dago.

atxillotu eta Ondarretako espetxera eroan eben. Abade batek salatu eban abertzalea zala. Eraiteko euken. Salatzailleak Andoain'go parrokia eskatu eban Gasteiz'ko gotzaindegian.

Matxinzaleak 14 andoaindar il ebezan (izenak dakaz) eta erreketek 17 emakumei ulea ebagi etseen (Belok, 1936-12-18)

BEREMUINDO MENDIZABAL (LAZKANO)

Beneditarra da eta beti egon da Lazkao'n. Erbesteratuta etorri dala Belok'era diño.

Franco'tarrak beste lekaide batzuk estibaliz'era bialdu dabez.

Besain'go abade dan Florentzio Aspe izan da salatzaille.

Martinez alferezak arakatu eban lekaide-etxea, izkilluak daukaguzala-ta.

Emakumaeai eta nekazariari isunak ezarri eutsezan, 40 eta 30 ogerleko.

Abadeai berbaldiak erderaz egiteko agindu eutsen eta orrelan egiten da.

Beasain'go abadeak esana: "Zuek errekte ta falanjekook, erail egizuez marxistak, erail!"

Beasain'en 37 errubako erail eberzan egun gitxiren barruan.

Oria'ko Billafranka'n tradizio-zaleak ziran salatzailleak eta asko izan ziran salatuak eta eraillak.

Isasondo errira Naparroa'ko abade bat etorri zan, erreketek jantzita, abadegai napar bigaz eta emakumeak zigortu ebezan. (Belok'en 1926-12-19).

JAIME ARANBURU (GAZTEIZ)

Seminario'ko irakaslea da eta erroma'ra doala ikastera diño.

Aperribai gazte bizkaitarrak esan eutson zelan ilten dabezan arerioak:

Gaua egiten dauanean espetxera joaten dira kotxe bigaz, txikia eurentzat eta aundia espetxekoak eroateko. Gero Miranda de ebro'ra joaten dira eta an kapellau artzen dabe. Conchas de Haro'ra eltzen diranean, atortu-azo eta erail egiten doguz. Belok'en, 1937-01-12.

A. SAEZ DE NABARRETE (EL CIEGO)

Sinforiano Jimenez de Vantrosa len ezker-zalea zan eta ez zan eleizara joaten, baiña errepublika-sasoian abertzale biurtu zan eta solidarioen artean ebillan nagusi. Domeketan mezara joaten zan eta uztaillean matxinzaleakaz bate egin eban.

Gabetan erririk erri joaten zan beste batzukaz il bear diranak batzen.

iraillean 10 batu ebezan eta Miranda'n il ebezan, beste batzuk Gasteiz'ko karmelitetan.

Abade batek eleizan esan eban: "Jainkoak noizean bein gizon salbatzailleak bialtzen dauz mundura eta Mola ta bestea olakoak dira. (Belok'en 1937-01-15).

URETAKOAK ETA SEDAGILLEAK



Zomorro batzuk erreketako uraren inguruan ibiltzen dira, batzuk egaz, beste batzuk uger, batzuk arrantzale, beste batzuk eiztari. Eurak iñoz be ez dira buz-titen, ezkata bereziak daukezela-ko.

Burruntzia da nagusi eiztarien artean eta onen janaria euliak, mintxiak, eltxoak eta erleak dira.

Andereño izena daukan lagun eta senide bat dauko.

Zapatariak beti agiri dira ur-gaiñean gorputz luze, mee eta ariñagaz, orratz antzeko anka luzeak daukez eta beste zomorro batzuk jaten dabez, lenengo pozoizko eztenka-deagaz geldituta. Mota batzuk egodunak dira.

Orreikaz batera ibiltzen dira tximutxak, ditikoak eta fri-ganeak. Baiña entzute aundiagoa dauke zomorro sedagil-leak.

...

Sedagilleak gaur gizakien menpe dagozen mintxiak dira, k.a.2 660n urtean asita txinatarrak ezagutzen dabe zomorro-mota au eta oneik egiten daben sedea. Mintxi ori Txina'tik kanpora eroatea debekatuta egoan, eriotzearen zigorra gaiñeratuta. Bardin seda-zugatzak ateratea be.

VI gizaldira arte ez zan ezagutu Europa'n mintxi ori eta gure artera arabiarrak ekarri eben VIII gizaldian.

Seda-kokoa masusta landaran bizi da. Udabarrian arrautzak egiten dauz mintxi orrek eta urrengo udabarrian arrautzatik koko uletsu batek urteten dau. Orretarako ogei graduko beroa bear dau.

Koko orreik jaio ta berrogei egunera amar bider aundiagoak egiten dira. Koko ori oso jatuna da eta orria jakeran zaratatxu bat egiten dau. Bost edo sei bider aldatzen da koko orren gorputza.

Agopean daukan glandula batek txistu-antzeko bat emoten dau eta ori gogortzen danean, sedea da. Ari orregaz sare bat egiten dau kokoak ibillian eta orren barruan batzen da kokoa eta iru aste-barruan zorro ori zulatu egiten dau eta mintxiak urten. An geratzen da alperrik berea izan dauan seda-zorro utsa.

Tximeleta edo mintxia izatera ez dau eldu bear kokoak. Zorroa eginda dagoanean, gizakiak artu eta legortegi batera eroaten dau eta 15 minutuan 75 graduko beroan euki. Kokoak il egiten dira, baiña seda-zorroa ur berotara sartzen dau eta gizakiak aurkitzen dau ariaren asierea eta aril baten batzen dau. 1.000 edo 1.500 metroko seda-aria eukiten dau zorro bakoitxak.

Beste toiki batzutan be, Txina'tik kanpoan, agertu dira mintxi sedagilleak: Japon'en Anterea, sortalde-sortaldean Ataccus, India'n Filosamia eta guztiok jokatzen dabe antzera. Ameriketean be ba-dago.

TERMITAK ETA IÑURRIAK

Termitak erromatarrakandik artu dabe izena, baiña orain 200 milloi urtetik 15.000 termita-mota dagoz munduan: lur-azpian azten dira eta itsuak dira. Lurralde bero ta buztiak nai dabez.

Lau milimetroko luzerea dauka eta argiñik onenak dira buztiñez euren etxeak egiten.

Zurezko edozer jaten dabe, landara biziak be bai. Oso jatunak dira eta orregaitik ondatzaille bildurgarriak, etxeak bota be egin leikeez, argi-ariak jan be bai.

Termita-talde bakoitxean milloi bat inguru bizi dira, bosteun milla langille eta beste bosteun milla gudari.

Buruan azal gogorra dauke.

Taldeak erregea ta erregiñea daukez, gudariz ondo inguratuta: janariak emon eta apaindu egiten dabez, beste batzuk arrautzak eroaten dabez erregiñearen gelatik euren leku berezietara. Erregiñeak minutoko 3 arautza ipinten dauz, egunean lau milla.

M o l t z o -
barruan lanak
argi dagoz eta arau
ziurrak daukez.

Iñurriak dira termiten etsaiak eta guda gogorrak egiten dabez termiten eta iñurrien artean, baiña termitak beti dagoz illunetan, iñurriak, ostera, argitan be bai.

Termitak lur-azalean bizi dira, lurra azpitik asterata, iñurriak lur-barruan.


Termiten bizia erree ta erregiñearen esku dago, iñurriak erregiñea baiño ez dauke.

Iñurrien gorputz osoa sendoa da, termitak burua dauke sendoa.

Iñurriak 3.500 mota baiño ez dagoz.

Iñurrien artean mota oneik aurkitu geinkez: Baratzlariak, ezti-batzailleak, ume azitzailleak, igilariak, arrapalariak eta burrukalariak.

Esaterako, "attas" iñurriak Texas'tik Brasil'era joaten dira mendiz, eztibatzailleak, Kolorado'n bizi dira. Ez dakie ezta gordeten, euren barruan gordeten dabe eta bear dauanari emon agoz. USA'n beien alde egiten dabe lan, onein zorriak erailda. Igitariak Texas'en dagoz eta neguan zomorroak jaten dabez, baiña udan azi-aleak. Arrapalariak edo eiztariak burrukak egiten dabez. Egoameriketean eta Afrika'n: Beste iñurri batzuk jaten dabez, arerio diran iñurriak, eta arerio nor dan jakiteko, guztiak dauke euren erregiñeagandik usain bereizi bat arerioa ezagutzeko.



OLAZAR'tar Martin'ek

BIZKAIERA ZUZPERTZEKO BIDEAK

ERRIAREN EUSKEREA

Bizkaiera bere leenengo euskalki lez ez dabenentzat, ara nun aurkitu dodazan bi idazti edo liburu polit.

Aurki Oñatibiar Yon'eri (berak alaxe idatzi eroian) omenaldi egitekotan dirala, berak idatzitako "Erriaren Euskera Batua" aitatu daigun.

Berreun eta irurogeitamairu orrialde dituan liburu ederra; bertan ogeitamar ikaskai daukoz.

Gorritz bereizten dauz gauzarik garrantzitsuenak, iztegitxuak eta elizti- edo gramatika-laukiak daukoz, gero ikasitakoa ikasberritzeko oso baliagarri diranak. Irakasbidea berez gipuzkera osotuz ageri da, baña ikaskai bakoitzaren amaian euskalkien daukezan ezbardintasunak azaltzen dauskuz, bizkaiera be ageri dala, jakiña.

Badogu Oñatibia'tarrak euskerearen alde egin ebezan bearren barri.

Euskeraz polito ikasi gura dabenentzat liburu bikaiña beraz...

EUSKALERIAREN EDESTUA

Bestalde, aurrak edestia ikasteko idazia aurkeztu gura neuke. Bere izena "Euskalerra'ren Kondaira" dozue; Arrue'tar Gregorio'k atondutako idazti goxo au, leen Oñarrizko Eziketa Orokorra zaneko 7'gn. eta 8'gn. malletarako egokia izaki; izena bearbada ez da ain egokia, "kondaira" berbeak gogora ipuiña, elezaarra dakarskuz-eta. "Edestia" bear luke. Euskalerra'ko sei erkien ikurrean ere naasmenik ageri da orratik, Bizkai'ko ikurdian otsoak, eta Gipuzkoa'koan sutunpak edo kañoiak azaltzen dirala.

Alan eta guztiz be, bai dau orratik alde on-ona; berton zutabe bana darabilte-ta bizkaiera ta gipuzkera azaldu daitezkan; olan ba, ikasleak neke aundi bagerik jabetu leiteke bi euskalki orreen antz eta aldeez; lan erraz, ulergarri ta ariña... Gaurko egunean ikastetxeetan erabilten ez dana... Olango lanak tajutan ebezan orduan...!

Idazti orren atzealdean iztegitxua dator, eta bertako berba egoki batzuen barri emon dagigun: **ABERASBIDE**: rikeza. **ARO BARRI**: Edad Moderna. **ATAKA**: puerto de monte. **BALTZU**: Sociedad Anónima (berba au batuaz be anartuta dago, "alkarte" berbeak oso esan-nai orokorra dauko-ta). **BERAKADA**: decadencia. **BERJABETZA**: reconquista. **BIZIBIDE**: subsistencia. **BURDINGINTZA**: industria metalúrgica. **BUSTINGINTZA**: cerámica, alfarería. **EORTZI**: sepultar. **ERAKUNDE**: institución (au be, emen ageri diran geienak laso, barra-barra erabilli daroaguz. **ERREGÉ** **OIÑORDEKOTZA**: dinastía. **ERROMATARTU**: romanizarse. **ETXEGINTZA**: construcción, edificación. **ETORKIN**: inmigrante. **GOTZAITEGI**: obispado (au be batuaz onartua).

GUDATE: época de guerra. **IKURDI**: escudo de armas. **ITUNBEN**: pacto, tratado. **IZKILLU**: arma. **JAGON**: defender. **JAUNTZA**: señorío. **JENTILBARATZ**: crómlech. **KELTAR**: celta. **KLASE BARRIKO**: de estilo neoclásico. Labe nausi: altos hornos. **LURRUNONTZI**: barco de vapor ("bapore" dalakoa baiño egokiagoa, nire uste apalean). **MEATEGI**: mina. **ONTZIDI**: flota (au be batuak onartua dau). **ORDEZKARI**: diputado, teniente; delegado, representante be izan leiteke; diputado "alduna" da. **TRIKUARRI**: dolmen. **SALEROSLE**: comerciante. **SARRADA**: invasión ("burrustaldi" ta "burrust-eraso" be egokiak dira. **ZIÑARTU**: jurar. **UGAZABA**: patrono. Berak darabiltekan batzuen orde, beste oneek obetsiko neukez: Paleolitos Aroa ' **ARRI-ZAAR AROA**, **ARRI-ZAR AROA**. Mesolitos Aroa ' **ERDI ARRI-AROA**, tarteko arri-aroa, Neolitos Aroa ' **ARRI-BARRI AROA**, **ARRI-BERRI AROA**. Iragoketa (transporte); txarto eritxi barik, maizago erabilten doguz **LORRETA bizkaian eta KARRIO, GARRAIO** beste erkietan.

"IKAS" IZTEGIA

Sakeleko iztegi txikar goxo bat be ez daigun aztu: "Euskerazaleak" argitaldutako "Ikas" iztegitxua; egilleok onako onek dozuez: Montiano'tar Joxe Antonio ta urkixo'tar Joxe Ramon; Etxenagusia'tar Karmelo ta peña'tar Xabier'en laguntza izan eben; berreun eta ogeta emetzortzi orrialdeko lana, bertan gipuzkera ta bizkaiera ageri dirala; euskeraz ikasten ari diranai laguntza andia eskeiñi leikie. Berbea bietako zein euskalkitako dan adierazoten dabe, ta barbarik erabillienak batz illunez ageri dira, zeintzuk diran jakin daigun. Geien erabiltzen diran aditzetgako batzuk be azaltzen dira, bai bizkaieraz, bai gipuzkeraz.

Asier Etxaburua'k

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LAGUNTZA JASO DAU

PLEISTOZENO'KO GIZAKIAK

Gizakiak, jatorriz, bizidunen artean zarrenak zirala uste zan, Linneo'k bere sisteman bizidunen artean asieran jarten dau gizakia simioakaz batera, ortik dator "primati" izena. Izen onek guztien artean lenengoak esan nai dau.

Orangutan izenak "baso baltzeko gizona" esan gura dau. Darwin'ek berak be zibilizatugabeak gizonak baiño lenagokoak dirala esan eban.

Astarren edo fosilak, Linneo'ren aldian, Jainkoak mundua egin ebanean an ipiñiak dirala uste eben. Olako pentsakerak ziran nagusi lenengo neandertalak aurkitu ziranean.

Darwin'en ostean asi ziran astarrenak gure aurretikoenak dirala esaten lenengoa "erectus" bat izan zan. Gero mundu zarreko iru lurrarteetan agertu ziran olakoak (erdiko pleistozenokoak): Java, Pekin, Mauritania; baiña erdiko pleistozenoan (orain 730.000 urtetik asita) gizakien mota bi baiño ez dagoz.

"ERECTUS"EN MAILLAK

Pleistozeno'a 1,62 milloi urtetik 10.000 urtera luzatzen da eta iru aldi daukaz: 1) bekoa: 1,62-0,73. Erdikoa: 730.000-130.000. Goikoa: 130.000-10.000.

Pliozenoan ikusi doguz "australopithecus" eta sendoak-makalak.

Beko pleistozenoan oraindiño parantropoak egozan eta danak batu ziran gizakien maillara erdiko pleistozeno'an.

Edozein alditan gizakiak beti mota bakarra izan dirala esan da eta aurreko gizaki guztiak emen "homo erectus"en batzen dirala eta geu be or gagozala. Gero dator bide orretatik "homo habilis" eta "homo sapiens" eta mota barri bat "homo ergaster" deritxona.

Afrika'ko sortaldean "homo habilis" baiño geroago, burua aundia dauakana, lanebesak egiten ona dana da "ergaster" ori. Orduan "homo erectus" Asia'koa da, "homo ergaster" Afrika'koa, eta onek emon eban goi-pleistozenoan gizaki barria, gaurkoa (Olduvai'en ba-dago "homo erectus" be).

1,4-1,8 milloi urteen artean Kenia'ko Turkana zingirandoan "homo habilis" agertzen da, Leakei'ren ustez.

Atapuerka'n erdiko pleistozeno au nastatu egin da. 800.000 urte baiño lenagokoa da "homo antezesor", baiña neandertal eta "sapiens" be "ergaster" baiño geroagokoak.

Zein da ziurragoa "homo erectus" bakarra ala "homo erectus" eta "homo ergaster" batera? Gauzea zalantzan dago.

Erdiko pleistozenoa'n "homo erectus"en barruian sartuko doguz "homo habilis", "homo rudolfensis" eta "homo ergaster": Burua aundia, (aurrekoen lako bi), lanebesak geroago ta konplikauagoak, adimen aundiagoa...

JAVA'KO ERECTUS MAILLA

Asia'ko "homo erectus" dogu gogoan, oneixek bakarririk diralako benetako "homo erectus", askok uste dauan lez, eta Java'tik eta Txina'tik artuak dira... Lenengoa 1892n. urtean aurkitu eban Dubois'ek Java'n eta izena "antropopithecus erectus" ezarri eutson, gero "pithekanthropus erectus". Gero bertan Java'n be agertu dira beste batzuk.

Geienak erdiko pleistozeno'koak dira, batzuk milloi bi urtekoak be bai. Oso antxiñakoa da Asia'ko "homo erectus". 1,8 milloi urtekoa..., orduan lenago urten eban Afrika'tik, atxelense baiño lenago eta onek 400.000 urte daukoz.

Eta zelan joan ziran Afrika'tik Java'ra? Baltsak egin da? Ez. Beste eraren bat izan eben, bear ba'da aldi baten itxasoa beerago egon zan.

TXINA'KO "ERECTUS" MAILLA

XX gizaldiaren asieran, Txina'ko botiketean astarnak edo fosilak saltzen ziran eta "dagroi-agiñak" euken izena. Afrosiakoak ziran. Azurrak austu egiten ebezan karu saltzeko, gizakienak ziran, ziur!

Astarren oneik erosten joaten ziran ango botiketara billatzaileak baiña 1921n. urtean asi ziran lurra atxurtu eta astarrenak aztertzen eta agin batetik atera eben "sinantropus pekinensis".

40 notiñen azurrak aurkitu ebezan, eun agin euren artean, eta 1985n. urterako 5.000 lanabers be bai. Java'koak alkartu ziran eta "homo erectus pekinensis" ori 590.000-128.000 urteen bitartekoa zala ikusi eben. Java'koen antza ba-dauke baiña burua txikiagoa eta agiñak be ez bardiñak.

Noz joan ziran gizakian Asia'ra?

1963n. urtean aurkitu ebezan agin batzuk "homo erectus"enak dira eta oso zurrak, 750.000 urte-inguru. Lenagoak be ba-dagoz, Olduvai'ren aldikoak be bai, 1,96 milloi urtekoak. Lanebesak be ba-daukez. Geroagokoak be ba-dagoz "erectus sapiens" motakoak.

AFRIKA'KO "ERECTUS" MAILLA

Egoaldean daukagu Olduvai tokia eta or astarrenak 1,25 milloi urtekoak asita.

Turkana Afrika'ko zingira bat da eta onen inguruan ondo zainduta dagoz mota batzuk, milloi bi urte-inguru koak.

Marruekos eta Arjelia'n be ba-dagoz astarrenak.

EUROPA'N "ERECTUS"AK?

Astarren gitxi eta oraintsukoak dira Europa'n aurkitu diranak.

1891n. urtean: "Erectus"ik ez dago Europa'n, egote-kotan be banakak eta Lurrarte-itxas-inguruan.

Iru buzu-azur agertu dira gero, geienak "homo sapiens"enak.

500.000 urtekoak eta lanabesak aurkitu ziran España'ko Torralba'n, geroago agertu dira Ingalterra'n, Georgia'n, Atapuerka'n eta Orze'n.

Nondik igaro ziran Afrika'ko gizakiak Europa'ra? Bideak oneik izan zeitekezan: Jibraltar, Ipar-Afrika'tik Italia'ra, Bosforo'n.

Orain 900.000 urte ba-egozan Europa'n "erectus"ek.

ATAPUERKA-"HOMO ANTEZESOR"

1976n. urtean Burgos'tik 14 km'ra dagon Atapuerka'n aurkitu eben "sima profunda": Erdi-pleistizeno'ko azurrak, matrail-azurra, amairu agin, aurpegiko albo-azur biren zatiak.

"Sima" edo leiza ori asiera bat zan, ero gaizakiak agertu ziran erdipleistozeno'koak... Orrek agertzen dausku antxiñatik dagozela gizakiak Europa'n.

Atapuerka zabala da, iru km. Or agertu zan Gran Dolina leiza, erdikopleistozeno baiño zarragoak eta lanabesak. 1978n. urtean 18 neurkin sedimento II maillatan. 1994n. urtean 30 buru-azur, matrail azurra eta agiñak, gizakienak. Oneik 780.000 urte baiño lenagokoak dira. 1995n. urtean gazte baten aurpegia, buru-azurra eta agiñak. Ez dira "erectus"enak, Ez "ergaster"enak, ez "neandertal"arenak. Orregaitik izen barria, "homo antecesor", orreik guztiak baiño lenagokoa, eta Afrika'n be ba-dagoana.

ORCE'KO GIZAKIAK

Orze Granada'n dagon tokia da. 1995n. urtean paleontologoen batzarra egin antxe, baiña eztabaida aundiak sortu ziran gizakienak ziran ango astarrenak argitzeko orduan. 1,8 milloi urtekoak dira, Europa osoan zarrenak. Lanabesak be ba-dagoz eta Murtzia'n be agertu dira gizakiak.

"HOMO ERECTUS" ZELAKOA DAN

Oin bigaz dabil, burua aundia dauka (700-1250 zm), arpegian begi-gaiña sendoa. Okotz-aldera aurreratuta, agiñak aundiak, okotzik ez dauko, goierea, 1,70 m. Eta aztun 58 k.

...

"Erectus": Afrika'ko sortaldean agertu zan, "homo habilis"en ostean.

Eurak izan ziran lenengoak Asia'ra ta Europa'ra joaten, baiña tropikoan eta sabanetan bizi izaten oituta egozan eta toki askoz otzagoetara joan ziran.

Lanabesak egiten ikasi eben eta euren edestia milloi bat urte-ingurukoa da.

Mota bat ala geiago ziran jakiten ez dago errez: "homo habilis", gero "homo erectus", gero "homo sapiens"... baiña jakitun batzuk guztiak sartzen dabez txinpanzeakaz batera "homo sapiens"en barruan.

...

Zenbat mota edo espezie dira "erectus"ak?

Esku-liburuetarako mota bat aldakuntzakaz ipinten da baiña billatzailleak mota asko dirala diño.

Zelan izan zan "erectus"etik gaurko gizakietara igarotzea?

Oinkada oneikk ipinten dauz eskuan daukagun liburuak: 1) Erectus Afrika'ko sortaldean 1,8 milloi urte dirala... 2) "Erectus olduvaiensis habilis" eta onen lanabesak atxelense aldian... 3) Afrika'tik urten Asia'ra eta Europa'ra jatekoa erezago aurkitzeko. Jibraltar'etik ala Italia'ra? 4) "Erectus" Asia'n baiña ez, baiña geroago agertu ziran Atapuerka'koak, "homo antecesor". 5) Goi paleolitikoa ez doa batera leku guztietan: Erectus, antecesor, neandertal, sapiens. 6) Atapuerka'n "erectus"etik urtean, sapiens'erantza.

OLAZAR'tar Martin'ek



3.-NAFARROA ARDATZA

1936'KO GUDA EUSKADI'n

(Berazategi-Domingez)

Matxinada Iruña'n izan zan gertatua. Ara ekarri eban Afrika'tik erkalak Emilio Mola, Afrika'ko militarrekaz alkartu ez eitean.

Mola militar ontzat egoan eta ardura aundiak be euki ebazan, batez be monarkiaren aldian, baiña erkalaren buru zan Azaña ez eban maite.

1936n. urteko sanfermiñen inguruan ebiltzan joan-etorriak ustiatuta, errez izan jaken matxin-zaleai batzararak Iruña'n egitea eta matxinada bera gertatzea.

Beste alde batetik, Nafarroa'n nagusi ziran karlistak, urduri egozan orduko agintariak kendu-arte, batez be Eleizearen aurka ebiltzala ikusten ebelako. Nafarroa'n eskoitarrak % 70 ziran.

Errez ulertzen da ba, Nafarroa'n besteak zapalduak izatea eta matxinzaleak nagusi agertzea.

Baiña ez egozan oso-osoa Mola'ren alde. Calvo Sotelo erail ebenean alkartu jakozan Mola'ri. Varela artu eben lagun gudarostea gertatzeko eta izkilluak be aurkitu ebezan.

Nafarroa'ko erreketen buru Jaime del Burgo izan zan. Onen semea da gaur aldun dan Jaime Ignazio.

Erreketen oneik 12 000 boluntario lortu ebezan eta Gipuzkoa'ra, Logroño'ra ta Soria'ra zabaldu ziran. Madrid'era be urreratu ziran, an matxinzaleak txarto ebiltzalako, baiña ez eben ezer lortu oraingoz.

Eta beste %30 zer ziran eta zer egiten eben? Oneik geienak Iruña-aldekoak eta Erriberakoak ziran, ezkertiarren aldekoak eta abertzaleak. Jakiña da gero Erribera'n zapalkuntza negarria izan zan. 2500 erail ebezan.

Nagusi urten eban, ba, matxinada'n Nafarroa'n eta Mola gizon aundia zan matxinoen artean.

Gudaren sua agertu zan Afrika'n, baiña ez ain ziur. Barruko urietan, Madrid'en batez be, ez ebelako irabazi.

Uztaillaren 18'tik aurrera Mola'ren izarra illuntzen doa, batez be Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n aurrera egitea lortu ez ebalako.

Franco ez zan matxino izan asieran, baiña lan aundia egiten eban gudaren egoaldean eta gogorkeri ikaragarri jabetu zan Andaluziaz, Extremadura'z eta Ego-Kastela'ren zati batz. Zemendirako Madrid'en egoan Franco. Bere gudariak ondamendia izan eben, baiña gogor jarraitu eban.



Erreketen buru zan Jaime del Burgo, iru izardun txapelagaz dagoana (gaurkoa'ren aita)

1937'ko bagillaren 3n. egunean, Bilbao eskuratu bagerik, Mola il egin zan egazkiñeko istripu bategaitik. Franco geratu zan nagusi, maltzurragoa ta gauzak neur-tzen ohea zalako.

Batzuk esan dabe Franco'k erail ebala Mola egazkiñeko istripua berak gertatuta. Ori ez dakigu. Baiña bai Mola politika-arloan ilda egoala.

OLAZAR'tar Martin'ek

TXAPELKETA

1
Ogeitasei urtekin,
ori da ixtoria:
kaiolan ere aurtan
duzu irabaztia,
zure aitak ondolik
deika animatzia,
orreri kasu egin
ori da ikastia.

2
Berregun eta ogeita amairu
jokatutakoak,
amarretik sei dira
irabazitakoak.
Ez dira oiek izango
zure azkenekoak,
aurrera olaxe segi
nere desioak.

3
Partidua gogorra
bai zen biontzako,
Barriola ikusi nun
bildurra artzeko,
ogeita bana berdin,
bestea egitteko
suerteia izan duzu
ori irabazteko.

4
Txapel ori gordetea
toki berexian,
maite izan dezazu
zure bizitz au,
izardiakin ziñan
buruan jartzean,
kontu au esateko
urrengo urtian,

LUZIA GOÑI'k
Atano Pilota-lekuan 2006-12-27

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

BBK

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

bbk²

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es